# Jaraunspen bat izapidetzean CaixaBank-en produktuak eta zerbitzuak kudeatzeko gida

Jaraunspen baten tramitazioa oso une delikatuan gertatzen da. Gure eginkizuna izapideak ahalik eta gehien erraztea da.

Dokumentu hau informaziorako bakarrik da, ez du balio juridikorik.

# Oinarrizko informazioa

**Zertarako balio du gida honek?**

Gida honek urratsez urrats zehazten du hildakoak CaixaBank-en zituen produktuak eta zerbitzuak izapidetzeko prozesua. Hark zituen produktuak eta zerbitzuak jasotzeko izapidetzean aurkeztu behar duzun dokumentazioa identifikatzen lagunduko dizu.

**Dokumentu honen azken orrialdean terminoen glosario bat aurkituko duzu, erabilitako hitzetako bat ulertzen laguntzeko.**

**Zer produktu eta zerbitzu izan zitzakeen hildakoak?**

Hildakoak honako hauek izan zitzakeen:

- **Banku-produktuak eta inbertsio-zerbitzuak (kontuak, txartelak, maileguak, baloreak, inbertsio-funtsak...)**
- **Aurrezki-aseguruak**
- **Arrisku-bizitzaren aseguruak**
- **Pentsio planak, BGAE eta AAP**

Jarraian, urrats bakoitzerako zer dokumentu aurkeztu edo eskatu behar dituzun adieraziko dizugu, izapidetu behar duzun produktua edo zerbitzua edozein dela ere.

**Non hasi behar dut tramitazioa?**

CaixaBank-en bulego batean. CaixaBank-eko inTouch bezeroek NOW bidez ere egin dezakete.

**Zer urrats egin behar ditut?**

Jaso beharreko CaixaBank produktu eta zerbitzuen arabera, urrats hauek bete behar dituzu:





Produktu eta zerbitzuak
Banku-produktuak eta inbertsio-zerbitzuak
Aurrezki-aseguruak
Arrisku-bizitzaren aseguruak
Pentsio planak, BGAE eta AAP
1. urratsa
2. urratsa
3. urratsa
4. urratsa
5. urratsa
6. urratsa
Heriotza jakinarazi
Egiaztatu jaraunslea zarela
Ziurtagiriak jaso
Onartu herentzia eta
ODZ likidatu
Espedientearen ebazpena
Banaketa
Heriotza jakinarazi
Onuraduna zarela egiaztatu
Ziurtagiriak jaso
ODZ likidatu
Prestazioa kobratu
Heriotza jakinarazi
Ezbeharraren balorazioa
Onuraduna zarela egiaztatu
Ziurtagiriak jaso
ODZ likidatu
Prestazioa kobratu
Heriotza jakinarazi
Onuraduna zarela egiaztatu
Prestazioa kobratu eta PFEZ likidatu





# **1. urratsa.** Heriotza jakinarazi

Heriotza jakinarazteko, CaixaBank-en bulego batera helarazi behar duzu Erregistro Zibilak emandako heriotza-ziurtagiria. CaixaBank-eko bezeroek **NOW** bidez ere egin dezakete.

## Zer da heriotza-ziurtagiria?

Pertsona bat hil dela egiaztatzen duen dokumentua da.

## Zer gertatuko da ondoren?

**Kontu eta gordailuekin**

Hildako pertsona kontuen titular bakarra bazen, blokeatu egingo da heriotza-datan zegoen saldo osoa. Titulartasuna beste pertsona batzuekin partekatzen bazuen, zati proportzionala blokeatuko da, titular kopuruaren arabera.

**Txartelekin**

Baja emango zaie titular gisa agertzen diren txartelen kontratuei, bai eta kontratu horren mende dauden txartelei ere. Hildako pertsona onuraduna zen txartelei ere baja emango zaie.

**Banku digitalarekin**

Banku digitalaren zerbitzua (CaixaBankNow) kontratatuta bazuen, baja emango zaio haren sarbideari.

**Helbideratutako ordainagiriekin**

Oinarrizko horniduren (argia, gasa, ura) helbideratutako ordainagiriak jasotzen jarraituko da, baita hildakoak CaixaBank-ekin edo haren taldeko edozein sozietaterekin bere gain hartutako betebeharrak (adibidez, mailegu-kuotak, txartelak...) betetzeari dagozkionak ere. Kontuan helbideratutako ordainagiriak bazeuden, zure esanetara gaude gai horri buruzko zalantzak banku-jardunbide egokiaren irizpideen arabera argitzeko

**Baimenekin/Ahalordeekin**

Baliogabetuta geratuko dira titularra zen kontuetan zeuden baimen, ahalordetze eta legezko ordezkaritza guztiak.

**Aldizkako transferentziekin**

Hildakoak agindutako aldizkako transferentziek eta intsuldaketek indarrean jarraituko dute, eta oinordekoek eten ahal izango dituzte.

**Inbertsio-produktuekin (baloreak eta funtsak)**

Inbertsio-produktuak (baloreak eta inbertsio-funtsak) blokeatuta geratuko dira, eta, beraz, CaixaBank-ek heriotza-ziurtagiria (edo ziurtagiri hori emateko konpromisoa duen data adierazten duen gutuna) jasotzen duenetik aurrera, ezingo da erosketarik, salmentarik, harpidetzarik edo errenboltsorik egin. Zorroak kudeatzeko kontratuak ezeztatu egingo dira, eta kudeatutako zorroaren aktiboak ere blokeatuta geratuko dira, hildakoaren gainerako baloreak eta inbertsio-funtsak bezala.

**Aseguruetako eta pentsio-planetako produktuekin, BGAErekin eta AAPekin**

Pentsio-planen, BGAEren, AAPen eta aseguruen produktuetarako, ez da onartuko prima edo ekarpen berririk, eta heriotzagatiko prestazioa bakarrik ordainduko da.





## 1. urratsa. Eskatutako dokumentazioa

**CaixaBank-i helarazi behar diozu Erregistro Zibilak emandako heriotza-ziurtagiria.**

### Zer da heriotza-ziurtagiria?

Pertsona bat hil dela egiaztatzen duen dokumentua da.

### Nola lortzen da heriotza-ziurtagiria?

Esteka honen bidez eska dezakezu: [https://sede.mjusticia.gob.es/es/tramites/certificado-defuncion](https://sede.mjusticia.gob.es/es/tramites/certificado-defuncion)

**Heriotza-ziurtagiriaren adibideak**



MINISTERIO DE JUSTICIA   Página 1/1

**Tomo:** [redacted] **P:** [redacted]   REGISTROS CIVILES

*Registro Civil de Miranda De Ebro*
***Sección 3ª*** ***Certificación Literal***

*(1-3-5) DATOS DE IDENTIDAD DEL DIFUNTO :*
*(8-6) Nombre :* [redacted]
*(7-6) Primer Apellido :* [redacted]
*(7-6) Segundo Apellido :* [redacted]
*(10-1-1-1) DNI :* [redacted]
*Sexo : (3-4-2) MUJER*
*(8-6-1) hijo de :* [redacted] *(8-6-2) y de :* [redacted]
*(4-1) Estado : (4-1-2) CASADA (6-1) Nacionalidad : ESPAÑOLA*
*(9-7-6) Nacido el día :* [redacted]
*(2-4-6) Lugar de nacimiento : LEÓN*
*(2-1-1-3) Provincia : LEÓN*
*(2-1-1) País : ESPAÑA*
*(9-1-1) Registro Civil de : LEÓN*
*(2-1-2-1) Domicilio último (2-1-3-6) :* [redacted]
*(2-1-3-2) MIRANDA DE EBRO (2-1-1-3) Provincia : BURGOS (2-1-1) País : ESPAÑA*
*(5-3) DEFUNCIÓN:*
*(9-9) Día :* [redacted]
*(9-4-4) Hora : ocho horas cero minutos*
*(2-6) Lugar :* [redacted]
*(2-1-3-2) MIRANDA DE EBRO (2-1-1-3) Provincia : BURGOS (2-1-1) País : ESPAÑA*
*El enterramiento será en : INCINERACION (2-1-3-2) MIRANDA DE EBRO*
*(2-1-1-3) Provincia : BURGOS (2-1-1) País : ESPAÑA*
*DECLARACIÓN DE*
*D./Dña :* [redacted]
*(2-1-3-2) MIRANDA DE EBRO (2-1-1-3) Provincia : BURGOS (2-1-1) País : ESPAÑA*
*COMPROBACIÓN*
*Médico D./Dña. :* [redacted]
*Colegiado núm. :* [redacted] *Número del parte :* [redacted]
*Hora :* [redacted]
*Fecha :* [redacted]
--------------------------------------------
--------------------------------------------
*(SIGUEN FIRMAS)*
--------------------------------------------
*Encargado D./Dña :* [redacted]
*Secretario D./Dña :* [redacted]
*REGISTRO CIVIL DE* [redacted]

*CERTIFICO que la presente certificación literal expedida con la autorización prevista en el art. 26 del Reglamento del Registro Civil, contiene la reproducción íntegra del asiento correspondiente obrante en Tomo* [redacted] *página* [redacted] *de la Sección* [redacted] *este Registro Civil.*

*Miranda de Ebro , cinco de noviembre de dos mil veintiuno*

***D./Dña*** [redacted] ***Secretario/a***

REGISTRO CIVIL · MIRANDA DE EBRO (Burgos)

N.º [redacted]



[redacted]

MINISTERIO
DE LA PRESIDENCIA, JUSTICIA
Y RELACIONES CON LAS CORTES

registrocivil

CERTIFICACIÓN LITERAL DE INSCRIPCIÓN DE DEFUNCIÓN

La presente certificación literal ha sido expedida con la autorización prevista en el art. 81 de la Ley del Registro Civil y contiene el tenor literal del/de los asiento/s solicitado/s que se transcriben en los siguientes párrafos, según resulta/n de los datos obrantes en el registro individual de la persona que figura en dicho/s asiento/s. Se declara que la presente certificación sólo da fe de las circunstancias que indica la Ley 20/2011 para cada hecho o acto que se comprende en el asiento o asientos a los que se refiere la misma (artículos 44.2, 59.5, 62.1 de la Ley 20/2011, de 21 de Julio, del Registro Civil).

*ASIENTOS QUE SE CERTIFICAN*

**INSCRIPCIÓN PRINCIPAL DE DEFUNCIÓN**

Nº Asiento: [redacted]
Fecha Inscripción Registro Electrónico de Seguridad: [redacted]
Código personal del registro individual del inscrito: [redacted]

DATOS DE IDENTIDAD DEL/DE LA INSCRITO/A: (8-6) Nombre: [redacted] (7-6) Primer apellido: [redacted] (7-6) Segundo apellido: [redacted], (8-6-1) Hijo/a de [redacted] (8-6-2) y de [redacted], (3-4-1) Sexo: [redacted] (4-1) Estado: [redacted] (6-1) Nacionalidad: [redacted]
Tipo de documento acreditativo de identidad: [redacted], número: [redacted]

(2-4-2) Nacido/a en: [redacted] (2-1-1-3) Provincia: [redacted] (2-1-1) País: [redacted] (9-7-1) Fecha: [redacted]

(2-1-2) Domicilio último: [redacted] (2-1-3-2) Lugar: [redacted] (2-1-1-3) Provincia: [redacted] (2-1-1) País: [redacted]. Código Postal: [redacted]

La inscripción se practica en virtud de: [redacted] realizada por [redacted] con Tipo de documento de identidad: [redacted] y número de identificación: [redacted] según consta en el expediente nº [redacted] del Registro Civil.

DEFUNCIÓN. (9-4-4) Hora: [redacted] (9-9) Día: [redacted] (2-6) Lugar: [redacted] Población: [redacted] (2-1-1-3) Provincia: [redacted] (2-1-1) País: [redacted].

El enterramiento será en: [redacted] (2-1-3-2) Población: [redacted] (2-1-1-3) Provincia: [redacted]. (2-1-1) País: [redacted].

DATOS DE FIRMANTE:
Nombre y Apellidos: [redacted]
En calidad de: [redacted]
Fecha de firma: [redacted]

Y para que conste y surta los efectos oportunos, se emite el presente certificado literal del Registro Civil.

| FECHA Y HORA DEL DOCUMENTO | DIRECCIÓN DE VALIDACIÓN | FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE POR |
| --- | --- | --- |
| [redacted] | https://sede.mjusticia.gob.es/es/comprobacion-autenticidad | Dirección General de Seguridad Jurídica y Fe Pública |

[redacted]

Página 1 de 1





**Bizitza-asegurua**

### Eta bizitza-arriskuko aseguru bat bazuen?

Pertsonak bizitza-arriskuko aseguru bat bazuen, **heriotzaren arrazoia zehazten duen dokumentazioa ere aurkeztu beharko duzu**, dagokionaren arabera:

- **Gaixotasunaren kasuan**, historial klinikoa edo heriotzaren arrazoiak, aurrekari patologikoak, diagnostikoaren data eta bilakaera egiaztatzen dituen txosten medikoa.
- **Istripuaren kasuan**, eginbide judizialen kopia osoa, halakorik badago, eta polizia-atestatua, autopsia eta txosten toxikologikoa.

### Nola jakin hildakoak aseguru-produkturik ba ote zuen?

*https://sede.mjusticia.gob.es/es/tramites/certificado-contratos-seguro* web-orrian lor daiteke heriotza estaltzen duen Aseguru Kontratuen Ziurtagiria. Bertan, kontratatuta zituen polizak eta zerbitzua ematen zuten aseguru-etxeak zehazten dira.

### Zer gertatuko da pentsioarekin?

Heriotza gertatu den hileko pentsioa pentsiodunari dagokio, eta, beraz, jaraunsleek pentsio hori eskuratu ahal izango dute testamentua izapidetu ondoren. Heriotzaren ondoren erakunde ordaintzaileak pentsioak ordaintzen baditu oker baten erruz, blokeatuta geratuko dira, itzuli daitezen.

### Nola ordain ditzaket hileta-gastuak?

Ehorzketa-gastuak hildakoaren saldoen kontura ordaintzea eska daiteke. Ehorztetxearen jatorrizko faktura aurkeztu behar da ordainketa egin ahal izateko, eta txeke izendunaren edo transferentziaren bidez egingo da.

# 2. urratsa. Egiaztatu jaraunslea edo onuraduna zarela

**Jaraunslea zarela egiaztatu behar duzu. Hildako pertsona aseguru-produktu baten edota pentsio-planen, BGAEren eta AAPren titularra ere baldin bazen, onuraduna zu zarela egiaztatu behar duzu.** Ikus, terminoen glosarioan, jaraunslearen eta onuradunaren arteko aldea.

### Nola?

Agiri hauek aurkeztu beharko dituzu:

**Azken Nahien Egintzen Ziurtagiria**

**Zer da?**

Pertsona batek egindako testamentuak jasotzen dituen agiri bat da. Justizia Ministerioak ematen du eta azkena egindakoa da balioduna. Hildakoak ez bazuen testamenturik egin, ziurtagiri horrek halaxe adierazten du.

**Nola lortzen da?**

Esteka honen bidez lor dezakezu: *https://sede.mjusticia.gob.es/es/tramites/certificado-actos-ultima*

**Ziurtagiri horretan, testamentua egin zuen ala ez irakur daiteke:**

### 1. TESTAMENTUA EGIN BAZUEN

**Testamentua egin bazuen, testamentuaren kopia baimendua** aurkeztu behar duzu.

**Zer da?**

Notarioaren sinadurarekin egindako testamentuaren kopia da.

**Nola lortzen da?**

Testamentua artxibatzen duen notariotzara joan behar duzu, edo eskaera egiten duen beste batera, eta Azken Nahiaren Egintzen ziurtagiria eta heriotza-ziurtagiria aurkeztu behar diezu.de defunción.

Honela egin dezakezu: **www.caixabank.es/testamentaria** web-orriaren bidez, gestiontestamentarias@caixabank.com helbidera posta elektroniko bat bidalita, edo bulegoan emanez.

### 2. urratsa. Eskatutako dokumentazioa

**Azken Nahien Egintzen** ziurtagiriaren adibidea



MINISTERIO DE JUSTICIA | DIRECCIÓN GENERAL DE SEGURIDAD JURÍDICA Y FE PÚBLICA / SUBDIRECCIÓN GENERAL DEL NOTARIADO Y DE LOS REGISTROS | REGISTRO GENERAL DE ACTOS DE ÚLTIMA VOLUNTAD Correo: Plaza Jacinto Benavente, 3 Teléfonos: 913 902 000 / 902 007 214 Ventanilla: c/ La Bolsa, 8 Teléfonos: 918 372 295 / 902 007 214

Número identificador: [redacted] Origen: ST CIUDADANOS
Fecha de expedición: [redacted]
Página 1 de 1

*Esta certificación carece de validez si presenta cualquier tipo de raspadura, enmienda o tachadura.*
*Los datos son los existentes en el Registro, pudiendo no coincidir con la partida de defunción.*

| | | |
|---|---|---|
| *Primer apellido del causante* [redacted] | *Segundo apellido del causante* [redacted] | *Nombre* [redacted] |
| *Fecha de nacimiento* [redacted] | *Lugar de nacimiento* LEÓN | *Provincia (o Estado)* LEÓN |
| *Tipo de documento* D.N.I. | *Nº de documento* [redacted] | *Fecha de defunción* [redacted] |
| *Hijo de* [redacted] | *Y de* [redacted] | *Sexo* MUJER |
| *Estado civil* CASADO/A | *Apellidos y nombre del cónyuge* [redacted] | |

Consultados los antecedentes del Registro por el funcionario correspondiente, resulta que la persona arriba expresada **OTORGÓ TESTAMENTO**:

20/02/2014 ANTE: [redacted]
EN: MIRANDA DE EBRO (BURGOS) (TESTAMENTO ABIERTO)

Fin de la certificación.

**Testamentuaren** adibidea



[redacted]

NUMERO [redacted]

TESTAMENTO ABIERTO

En [redacted] mi residencia, a [redacted].

Ante mí, [redacted], Notario del [redacted]

COMPARECE

[redacted], nacida el día [redacted] de [redacted] y vecina de [redacted], número [redacted]; provista de D.N.I./N.I.F. número [redacted].

Identifico a la compareciente, por su D.N.I. que me exhibe, quien manifiesta su voluntad de otorgar testamento abierto, y teniendo a mi juicio la capacidad legal necesaria para este acto,

DECLARA

**I.-** Que es natural de [redacted] e hija de los consortes [redacted]

**II.-** Que está casada en primeras y únicas nupcias con [redacted] de cuyo matrimonio, tuvieron un hijo llamado [redacted].

**III.-** Que tiene vecindad civil [redacted] por residencia.

**IV.-** Y que ordena este testamento, de la manera que yo, el No-

1 2 3 4 5 6

## 2. TESTAMENTURIK EZ BAZUEN EGIN

**Testamenturik egin ez bazuen, abintestato jaraunsleak deklaratzeko** akta aurkeztu behar duzu.

### Zer da?

Abintestato jaraunsleak deklaratzeko akta da kasu bakoitzean aplikatu beharreko legeria zibilarekin bat etorriz testamenturik egin gabe hil zen pertsona baten jaraunsleak nortzuk diren eta zein proportziotan zehazten duen dokumentu publikoa.

### Nola lortzen da?

Hildako pertsonaren azken egoitzari edo ohiko bizilekuari dagokion notarioari hitzordua eskatu beharko diozu ab intestato jaraunsleak deklaratzeko akta izapidetzeko.

## 2. urratsa. Eskatutako dokumentazioa

**Azken Nahien Egintzen Ziurtagiriaren** adibidea



MINISTERIO DE JUSTICIA

DIRECCIÓN GENERAL DE SEGURIDAD JURÍDICA Y FE PÚBLICA

SUBDIRECCIÓN GENERAL DEL NOTARIADO Y DE LOS REGISTROS

REGISTRO GENERAL DE ACTOS DE ÚLTIMA VOLUNTAD
Correo: Plaza Jacinto Benavente, 3
Teléfonos: 913 902 000 / 902 007 214
Ventanilla: c/ La Bolsa, 8
Teléfonos: 918 372 295 / 902 007 214

Número identificador: [redacted] Origen: ST CIUDADANOS
Fecha de expedición:
Página 1 de 1

*Esta certificación carece de validez si presenta cualquier tipo de raspadura, enmienda o tachadura.*
*Los datos son los existentes en el Registro, pudiendo no coincidir con la partida de defunción.*

| | | |
|---|---|---|
| *Primer apellido del causante* [redacted] | *Segundo apellido del causante* [redacted] | *Nombre* [redacted] |
| *Fecha de nacimiento* [redacted] | *Lugar de nacimiento* LEÓN | *Provincia (o Estado)* LEÓN |
| *Tipo de documento* D.N.I. | *Nº de documento* [redacted] | *Fecha de defunción* [redacted] |
| *Hijo de* [redacted] | *Y de* [redacted] | *Sexo* MUJER |
| *Estado civil* CASADO/A | *Apellidos y nombre del cónyuge* [redacted] | |

Consultados los antecedentes del Registro por el funcionario correspondiente, resulta que la persona arriba expresada **OTORGÓ TESTAMENTO**:

20/02/2014 ANTE: [redacted]

EN: MIRANDA DE EBRO (BURGOS) (TESTAMENTO ABIERTO)

Fin de la certificación.

Documento certificado por SELLO MINISTERIO DE JUSTICIA.

Es responsabilidad de quien admite este documento la verificación de su contenido en la sede electrónica del Ministerio de Justicia (https://sede.mjusticia.gob.es/) utilizando el código seguro de verificación (22 caracteres hexadecimales): UL:fLAi-mNnh-fvp3-zyER

**Abintestatoaren** adibidea



NOTARIO

[redacted]

*ACTA DE NOTORIEDAD DE DECLARACIÓN DE HEREDEROS ABINTESTATO DEL CAUSANTE [redacted] FALLECIDO EL DÍA [redacted] - (CONCLUSIÓN).* --

NUMERO: **DOS MIL DOSCIENTOS VEINTISIETE**.----------

En VIGO, mi residencia, a **DIECIOCHO** de **JULIO** de **dos mil veintidós**.------------------------------------

Yo, [redacted] Notario del Ilustre Colegio de Galicia, **DOY FE:**------------------------

I.- Que el día quince de junio de dos mil veintidós, bajo el número 1762 de mi protocolo, acepté el requerimiento instado por doña [redacted], para la iniciación del acta de notoriedad de declaración de herederos abintestato de [redacted], nacido en Vigo, provincia de Pontevedra, el día veintitrés de abril de mil novecientos ochenta, siendo hijo de don [redacted], con D.N.I. número [redacted], y fallecido en Vigo, el día [redacted], con su última residencia habitual

# 3. urratsa. Ziurtagiriak jaso

- Jaraunslea edota onuraduna zarela egiaztatu ondoren, hildako pertsona titularra edo gozamenduna zen kontratuetako saldo-ziurtagiriak emango dizkizu zure testamentu-kudeatzaileak. Horiekin, jaraunspenaren onarpena izapidetu ahal izango duzu notariotzan, eta oinordetza eta dohaintzen zerga (ODZ) likidatu ahal izango duzu.

Ziurtagiriak eman ahal izateko, CaixaBank-en testamentu-kontratua sinatu beharko duzu. Sinatu ondoren:

- Hildakoak indarrean zituen produktu guztien **ziurtagiriak emango ditugu**, heriotzaren datan zen saldoa ere adieraziz. Heriotza gertatu aurreko urteko laburpena ere emango dizugu, hala eskatzen badiguzu, inolako kosturik gabe, hildakoak zituen ageriko kontuen mugimenduak jasoko dituena.
- **Jaraunsleek herentzia onartu eta zergak likidatu beharko dituzte.** Horretarako, kontuan hartu behar da, hala badagokio, maileguak amortizatzeko aseguruak daudela, eta laguntza eska daiteke zorroak kudeatzeko kontratuak daudenean (gerta liteke hil ondorengo inbertsio-eragiketak egotea, heriotza bere garaian jakinarazi ez delako).

### Zer gertatzen da hildako pertsona aseguru-produktuen edota pentsio-planen, BGAEren eta AAPren titularra bazen?

Jakin beharrekoa duzu hau:

1. Kontratu horietan, hildako pertsonak berariaz izendatutako onuraduna azal daiteke. Kasu horretan, **izendatutako pertsonari emango zaizkio kontratuaren prestazioak.**
2. **Hildakoak ez badu onuradunik izendatu,** aseguru-polizan edo dagokion planaren erregelamenduan ezarritakoaren arabera izendatuko dira.
3. Hildako pertsona aseguru baten aseguratua bada, ziurtagiri bat egingo dugu onuradun bakoitzaren izenean, jaso beharreko zenbatekoarekin. Horren arabera, onuradunak Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergan (ODZ) edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan (PFEZ) ordaindu beharko du produktu hori. Bizitza- eta aurrezki-aseguruen kasuan, garrantzitsua da jakitea herentzia onartu aurretik likidatu daitekeela ODZ.
4. AAPko eta BGAEko pentsio-plan baten onuraduna baino ez bazara, ez duzu saldo-ziurtagiririk jaso beharrik, ezta ODZ ordaindu beharrik ere. Herentzia onartu aurretik ere kobratu ahal izango duzu plana. Ordainketaren hurrengo ekitaldian, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) aitorpena egiteko jakinarazpen fiskala jasoko duzu.

### Zer gertatzen da hildakoak finantzaketa-produktuak (maileguak eta kredituak) baldin bazituen?

Finantzaketa-produktuen (maileguak eta kredituak) titularra baldin bazen, oinordeko guztiek modu solidarioan hartuko dute beren gain zorra, hau da, guztiek erantzungo diete hildakoaren zor guztiei.

Oinordekoen artean adosten bada batzuek bakarrik hartuko dituztela beren gain hildakoaren zorrak, gainerakoak askatuz, CaixaBank-ek aukera hori aztertuko du eta eskatutako liberazioari buruz erabakiko du, arrisku-irizpideetan oinarrituta.

### Hildako pertsona mailegu baten abal-emailea bazen, heriotzarekin iraungitzen al da hori?

Ez, abala ez da iraungitzen heriotzarekin, eta, beraz, jaraunsle direnek hildakoaren betebehar bera hartzen dute bere gain.

### Zer egin behar duzu inbertsio-funtsak edo baloreak esleitu badizkizute hildakoaren herentzia banatu ondoren?

Izen-aldaketa arintzeko, jaraunspena  banatzeko baimen-agiria sinatu behar duzu CaixaBank-ekin, inbertsio-funtsak edo baloreak administra daitezen.

## 3. urratsa. Eskatutako dokumentazioa

**Ziurtagiriaren** adibidea

CaixaBank **Certificado de posiciones para expediente de defunción**

CaixaBank, S.A., inscrita con el número ) en el registro de Entidades Financieras del Banco de España, figurando inscrita en el Registro Mercantil de tomo folio 1, hoja número , inscripción 2ª, con número de identificación fiscal , y domiciliada en

**CERTIFICA:**

Que según consta en nuestros registros, con NIF número que falleció en fecha era titular del contrato de cuentas a la vista número IBAN , y:

- presentaba un saldo a fecha de defunción de

Que en el contrato indicado constaban como otros titulares:

Y para que conste, se expide la presente certificación a





# 4. urratsa. Jaraunspena onartu eta zergak likidatu

Jaso beharreko produktu edo zerbitzu motaren arabera, jarraibide hauek bete beharko dituzu:

## 4.1 Jaraunspena onartu

**Banku-produktuen** saldoen jaraunsleek bakarrik aurkeztu behar dute **jarauntsia onartzeko eskritura publikoa.**

### Zer da?

Jarauntsiaren onarpena eta jaraunspena osatzen duten ondasunen esleipena jasotzen dituen dokumentua da. Banatu behar ditugun ondasun guztiak jaso behar ditu, eta zer proportziotan egin behar dugun ere zehaztuko du. Dokumentua jaraunsle guztiek sinaturik egon behar du.

### Nola lortzen da?

Izapide hori eskritura publiko bidez formalizatu behar da, notarioarengana joz. **Jaraunsleek bakarrik sinatu behar dute**, onuradunek ez dute izapide hori egin beharrik.ite.

Bada zirkuitu azkarrago eta errazagoa bat sinpletzat eta saldo txikikotzat jotzen diren testamentuetarako. Izapidea hasitakoan, zure kasu zehatzean hori aplika daitekeen jakinaraziko zaizu.

## 4.1 urratsa. Eskatutako dokumentazioa

**Jaraunspena onartzeko eskritura publikoaren** adibidea

PAPEL EXCLUSIVO PARA DOCUMENTOS NOTARIALES

[redacted]

TIMBRE DEL ESTADO

[redacted]

0,15 €

[redacted]
*Notario*
[redacted]
MADRID

**ESCRITURA DE ACEPTACION Y PARTICION DE HERENCIA POR FALLECIMIENTO DE DON** [redacted] -----

NÚMERO [redacted] --------

EN SAN MARTIN DE VALDEIGLESIAS, mi residencia, a quince de septiembre de dos mil veintidós. --------

Ante mí, [redacted], Notario del Ilustre Colegio de Madrid. -----------------------

------------------- COMPARECEN --------------------

[redacted], nacida el día [redacted], jubilada, viuda, vecina de Villa del Prado (Madrid), con domicilio en la calle [redacted], número [redacted] y con Documento Nacional de Identidad número [redacted]. --------

[redacted], mayor de edad, contable, soltero, vecino de Villa del Prado (Madrid), con domicilio en la calle [redacted], y con Documento Nacional de Identidad número [redacted]. -----------------





## 4.2 Zergak likidatu

**Banku-produktuen** saldoetako jaraunsleek zein **aurrezki-aseguruen eta arrisku-bizitzako aseguruen** onuradunek **Oinordetza eta Dohaintzen Zerga (ODZ) ordaindu** behar dute, **eta hori ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztu behar diote CaixaBank-i.**

### Zer da eta nola ordaintzen da?

Erkidego mailako zerga da, eta autonomia-erkidego bakoitzeko dagokion likidazio-bulegoan aurkeztu behar da.

### Zergak likidatu behar al dira pentsio-planen, BGAEren eta AAPren prestazioak jasotzean?

Kasu horretan, onuradunek ez dute Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga (ODZ) ordaindu behar; aldiz, PFEZ zerga likidatuko dute prestazioaren kobrantza-ekitaldiari dagokion errenta-aitorpenean.

### Oinordetzaren zerga ordaindu al dezaket hildakoaren saldoekin

Bai, oinordetzaren zerga hildakoaren saldoen kontura ordaintzea eska dezakezu.





# **5. urratsa.** Espedientearen ebazpena

CaixaBank-en eman diguzun dokumentazio guztia aztertuko dugu, eta **testamentuaren txosten juridiko bat egingo** dugu, CaixaBank-en kontratuen saldoen **banaketa** ezartzeko.

Kopia bat emango dizugu, gainerako jaraunsleekin partekatu ahal izan dezazun.

Aurrezki-aseguruko, bizi-arriskuaren aseguruko eta pentsio-planetako, BGAEko eta AAPko produktuak ez daude jasota testamentu-txosten juridiko horretan, prestazioa zuzenean kobratzen baita.



1 2 3 4 5 6

## 5. urratsa. Eskatutako dokumentazioa

### Testamentuen txosten juridikoa adibidea

CaixaBank — **Informe jurídico de Testamentarías**

Este informe contiene la propuesta de reparto de las posiciones de la persona fallecida. Se ha elaborado a partir de la información aportada por los herederos durante la tramitación del expediente de defunción.

El documento se estructura en los siguientes **apartados**:

1. Datos de la persona fallecida
2. Datos del expediente
3. Sucesores y/o cotitulares
4. Propuesta de reparto – aspectos generales
5. Cuadro de Reparto de bienes
6. Documentación aportada
7. Próximos pasos y glosario de términos

**CaixaBank, S.A.** Carrer Pintor Sorolla, 2-4, 46002-València, NIF A08663619
Inscrita en el Registro Mercantil de Valencia, tomo 10370, folio 1, hoja número V-178351, inscripción 2ª

cenprasr02 2023-09-05 12:18:38,940 Ejemplar para el cliente 1

PL1030-230215 001-002 COP)



# **6. urratsa.** Prestazioa banatu eta kobratzea

Zurekin harremanetan jarriko gara jarauntsiko masa banatzeko beharrezko izapideak egiteko. Jaraunsle bazara eta CaixaBank-en bezeroa ez bazara, garrantzitsua da CaixaBank-en bulego batera jotzea, harremanerako zure datuak emateko eta banaketa izapidetu ahal izateko. Bezero gisa alta emanda ere egin dezakezu, **www.caixabank.es** webgunearen bidez.

CaixaBank-en saldoak **kontu korrontean** kobratzeko aukera eskaintzen dizugu:

**CaixaBank-en bezeroak**

Erakundean irekitako eta jaraunsleek edo onuradunek titulatutako kontu batean egindako abonu baten bidez.

**CaixaBank-en bezero ez direnak**

Beste erakunde batera transferitzeko aukera, kosturik gabe.

**CaixaBank-en bezeroak zein bezero ez direnak**

Eskudirutan ordainduta (kasu horretan, egun berean edo bulegoak eskudirua erabiltzeko epean).

**Inbertsio-funtsak edo baloreak** heredatu behar badituzu eta zure izenean espedienterik ez baduzu, bat irekiko dugu herentzian jasotzen dituzun posizioak intsuldatzeko.

**Aseguruen eta pentsio-planen, BGAEren eta AAPren** prestazioak kobratzeko aukera guztien berri emango dizute.



# Hitzen glosarioa

## A

**Abala:** pertsona fisiko edo juridiko batek betebeharrak beteko dituela bermatzeko edo ziurtatzeko kontratua, beste pertsona baten zorra bere gain hartzeko, hark ordaintzen ez badu.

**AAP:** aurrezki- eta aurreikuspen-aseguru indibiduala, banakako pentsio-planen antzeko estaldura eta prestazioekin, ekarpen-mugekin eta tratamendu fiskalarekin.

**Aseguru baten prestazioa:** onuradunari ordainduko zaion diru-kopurua aseguruak estaltzen duen asegurudunaren heriotza gertatzen bada.

**Abintestato Jaraunsleen Aitorpena:** testamenturik gabeko oinordetza abintestato jaraunsleen deklarazio-aktaren bidez egiten da. Notario-agiri horrek jaraunsleak nortzuk diren egiaztatzen du, hildakoak testamenturik egin ez badu. Horretarako:

1. Hildakoa bizi zen ohiko bizilekuaren arabera dagokion notarioari eskatu beharko diozu.

2. Eskaera hori egin eta 20 egun igaro ondoren, notarioak jaraunsleak deklaratzeko azken akta egingo du, eta agiri hori entregatu beharko diozu CaixaBank-i.

**Azken Nahien Egintzen Ziurtagiria:** pertsona batek egindako testamentuak jasotzen dituen agiri bat da. Justizia Ministerioak ematen du eta azkena egindakoa da balioduna. Hildakoak ez bazuen testamenturik egin, ziurtagirian jasoko da hori.

## B

**BGAE:** Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak. Aurreikuspen-planak egoitza fiskala Euskadin duten pertsonentzako aurrezki-produktuak dira.

**Bizi-arriskuko asegurua:** aseguratua hiltzen bada onuradunei zenbateko ekonomiko bat ziurtatzeko pentsatutako babes-irtenbide bat da, polizan ezarritakoaren arabera.

## C

**CaixaBank produktu eta zerbitzuak:** barne hartzen dituzte bankuen produktu eta zerbitzuak, inbertsio-produktu eta -zerbitzuak (baloreak, inbertsio-funtsak...) eta aseguruen eta pentsio-planen produktuak.

**CXB testamentuaren txosten juridikoa:** CaixaBank-eko abokatu aditu batek egindako txostena, hildakoak zituen produktuen banaketa laburbiltzen duena.

## E

**Ekarpena:** hildakoak BGAE pentsio-plan batean jarrita duen diru-kopurua.

## J

**Jaraunsleak:** jaraunsleak (zentzu zabalean, jaraunsleak, senipartedunak, legatu-hartzaileak eta abar barne hartuz) hildakoaren azken testamentuan, edo, testamenturik egin ez badute, abintestato jaraunsleen aitorpenean izendatuta agertzen dira. Banku-produktuen saldoak jasotzeko eskubidea dute.

**Jaraunspena onartzeko eskritura publikoa:** jaraunsle guztiek jaraunspena onartu dutela eta jaraunspena osatzen  duten ondasunen esleipena jasotzen duen agiria. Banatu behar diren ondasun guztiak jaso behar ditu, baita horiek zer proportziotan banatu behar diren ere.

**Jabetza soila eta gozamena:** CaixaBank-en, jabe soila da produktuen titularra, eta gozamenduna da produktu horien errendimenduak edo interesak jasotzeko eskubidea duena.

## O

**ODZ:** Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga.

Onuraduna: onuradunak dira hildakoak berariaz izendatutako, edo, halakorik ezean, planaren polizan edo erregelamenduan xedatutako pertsonak. Eskubidea dute prestazioak jasotzeko arrisku-bizitzako aseguruengatik, aurrezki-aseguruengatik eta pentsio-planengatik, BGAErengatik eta AAPrengatik. Onuradunak jaraunsleen pertsona berdinak izan daitezke ala ez.

## P

**PFEZ:** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga.

Poliza: aseguruaren baldintzak eta, hala dagokionean, horiek gerora aldatu edo osatu ditzaketen gehigarriak jasotzen dituen agiria da.

**Pentsio-plan baten prestazioa:** onuradunari ordainduko zaion diru-kopurua pentsio-planaren titular denaren heriotza gertatzen bada.

**Prima:** aseguruaren prezioa.

## S

**Saldoa:** kontu batean dagoen kantitate positiboa edo negatiboa.

## T

**Testamentua:** testamentua da egintza juridiko bat, zeinaren bidez pertsona batek adierazten baitu nortzuk izango diren bera hiltzen denean bere ondasun guztiak eskuratu ahal izango dituztenak.

CaixaBank